



Lupita

etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Lupitte / Lupitte

*“... la casería llamada Lupita...
sita con ellos [sus pertenecidos]
en la Anteiglesia de Berriz...
ocupa sesenta y cinco estados
cuadrados o sean doscientos
cuarenta y siete metros con sus
antusanos; se compone el piso
llano de zaguán, cocina aposen-
to, cuadra y horno, el principal
de salita, dos cuartos, desban y
pajar...”*

DJE, 3/212. or. (1877)



43° 10' 53"

2° 33' 8"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri-taberna izandako eraikin honen gaineko lehen aipuak XVIII. mende erdialdean aurkitzen ditugu, hots, *Lupita Echevarria* (1738, BAH, A123/31). Hortik aurrera, present izango dugu herriko dokumentazioan; baina izenaren bigarren osagaia, *echevarria* alegia, galtzen du: *Lupita* (1796, Bizkaiko su-eroldak), *Lupita* (1859, BUA, Nmc) eta XX. mendeko *Lupita* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Lupitte* edo *Lupitte* ahozko formak izan dira erabilienak.

Desagertzeko zorian egondako baserri etxea da eta ia berriro jaso dutena azkeneko berreraiki-

tzean. XVIII. mende amaierako edo XIX. mende hasierako trazar eraikitakoa da eta noizbait eskuma aldean beste eraikin bat erantsi zioten, harlanduzko leiho bakarra gordetzen duena. Etxe printzipalak aldamenen atartea dauka, zurezko dintelak babestua, eta ondoan, leihoa. Lehenengo pisuan, hiru leiho, erdikoa balkoi bihurtuta. Eta ganbaran, alde batean, beste leihotxo bat. Harlangaitzaz eraikitako etxea da, eta baoak hormigoizko plaka batez markatu dituzte. Teilatua bi isurkitakoa da.

toponimia

Beste kasu askotan bezala (Besaita edo Otsaita) pentsatu behar dugu izen honetan dugu la pertsona izen bat, Loperen eratorri bat, seguru asko, Lupiola (**Ikus Lupiola**) izenean bezala eta esanahia iluneko -ita atzizkia. Agian Loperena edo Lopena esango genuke gaur egun